



IKER  
GAZTE  
NAZIOARTEKO  
IKERKETA EUSKARAZ

## V. IKERGAZTE

NAZIOARTEKO IKERKETA EUSKARAZ

2023ko maiatzaren 17, 18 eta 19a  
Donostia, Euskal Herria

ANTOLATZAILEA:  
Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)



Aitortu-PartekatuBerdin 3.0

### GIZA ZIENTZIAK ETA ARTEA

**Adberbioak aztergai: kategoriaren  
auzia argitzeko zenbait gogoeta**

*Cecilia Fernández Altonaga*

59-66 or.

<https://dx.doi.org/10.26876/ikergazte.v.01.07>

ANTOLATZAILEA:



BABESLEAK:



LAGUNTZAILEAK:



## Adberbioak aztergai: kategoriaren auzia argitzeko zenbait gogoeta

Cecilia Fernández-Altonaga

Gogo Elebiduna ikerketa taldea, UPV/EHU – IKER UMR5478 ikergunea

[cecilia.fernandez@ehu.eus](mailto:cecilia.fernandez@ehu.eus)

### Laburpena

Adberbioak beste edozein gramatika kategoriaren parekotzat, hala nola, izenaren edo adjektiboaren parekotzat, jo izan dira gramatika tradizioan (euskararako, ikus Azkue, 1925; Lafitte, 1944; Euskaltzaindia, 1991, 2021; Hualde eta Ortiz de Urbina, 2003; Salaburu et al., 2011–2019). Alabaina, lan honetan erakutsiko dudanez, ikuspegi honek hainbat arazo teoriko dakartza. Arazo hauek hizkuntzalaritza orokorraren eremukoak diren arren, nik, euskaraz bereziki, adberbioez edo kidekoiez egin diren sailkapenen azterketa kritikoa egingo dut. Hala, agerian geratuko da euskaraz adberbiotzat hartu diren elementuak gramatika kategorien teoriarako esanguratsuak izan daitezkeen hainbat alderdi erakusten dituztela, hala nola, beste kategoriekin duten antzekotasun formal eta funtzionala.

Hitz gakoak: adberbioak, gramatika kategoriak, morfosintaxia, euskara.

### Abstract

*Adverbs have been considered just like any other grammatical category (i.e. like nouns or adjectives) in traditional grammar (as for Basque, see Azkue, 1925; Lafitte, 1944; Euskaltzaindia, 1991, 2021; Hualde and Ortiz de Urbina, 2003; Salaburu et al., 2011–2019). However, in this paper, I will show that this perspective leads to various theoretical issues. Although these issues concern general linguistics, in this work, I will pay special attention to the classifications of Basque adverbs and similar words and I will offer a critical review of them. It will become apparent that elements that have been considered adverbs in Basque bring forward aspects that can be of great relevance to the general theory of grammatical categories, such as their formal and functional similarity to other categories.*

*Keywords: adverbs, grammatical categories, morphosyntax, Basque.*

### 1. Sarrera eta motibazioa

Lan honetan, nire doktore tesiaren abiapuntua osatzen duten zenbait galdera teoriko azalduko ditut. Tesiaren oinarrian *adberbioak* kategorია<sup>1</sup> gisa definitzeko sortzen diren arazoak daude, eta hortik abiatuta, tesian zehar hitz hauek hobeto azalduko dituen analisi bat eskaini nahi dut. Analsiak kontuan hartuko du hitz-mota honek *modifikatzaile* funtzioa partekatzen duela beste kategoria batzuetan sailkatu izan diren zenbait elementurekin, hala nola, adjektiboak, postposizio sintagmak (PS) eta are izenak ere. Modifikatzaile guztiek komunean zer duten aztertuko dut, eta horretan oinarrituz, guztiek egitura bera partekatzen duten edo ez erabakiko dut.

Horretarako, baina, lehenik adberbiotzat hartu diren hitzen deskribapen zehatzak eta analisi kritikoak egitea ezinbestekoa da. Izan ere, sarritan ohartarazi denez (Jackendoff, 1972; Bosque, 1989; Baker, 2003; Delfitto, 2006; *Sareko Euskal Gramatika (SEG)* – Salaburu et al., 2011–2019, besteak beste), *adberbio* labelpean era desberdinetako hitzez osatutako multzo heterogeneoa bildu izan da. Lan honetan sailkapen horren azterketa kritikoa sakonduko dut batez ere. Euskaraz adberbiotzat jotzen diren egiturak berrikusiko ditut, horietako askok beste kategoria batzuekin dituzten antzekotasunak azalaraziz eta orain arteko sailkapen lausoegiek sortzen dituen arazo teorikoak erakutsiz. Oraingoan nagusiki euskarazko datuak aurkeztuko ditudan arren, azpimarratzekoa da bertan agertuko diren arazo teorikoak hizkuntza askotan sortzen direla eta, beraz, hizkuntzaren teoria orokorrean dutela eragina. Nire helburua izango da erakustea zeintzuk diren arazo hauek eta zein den eurak konpontzearen garrantzia.

---

<sup>1</sup> Aztertzaile batek ohartarazten nauenez, lan honetan gramatika kategoriekiko (hots, hizketa parteekiko) ikuspegi teoriko jakin bat hartzen dut, onartzen baitut kategoriek muga hertsia dituztela eta bata bestetik argi bereizten direla giza hizkuntzan. Ikuspegi honen arabera, hizkuntzaz jabetzerakoan, hiztunak kategoriak identifikatzen ditu eta horien arabera sailkatzen du lexikoa, baita elementu bakoitzaren jokabidea aurreikusi ere. Jakina, ez da hori hizkuntzalaritza kategoriekiko dagoen jarrera bakarra. Nolanahi ere den, hona ekarriko dudana eztabaidak beste ikuspegi teoriko batzuei ere berdin eragiten dielakoan nago (gai beraren beste tratamendu teoriko baterako, ikus Ramat eta Ricca, 1994).

Lanaren egitura honakoa izango da: 2. atalean azalduko dut euskal gramatiketan zer egitura hartu diren adberbiotzat. 3. atalean, adberbio gisa hartutako elementu hauetako batzuek beste kategoria batzuetako hitzekin dituzten antzekotasunak aztertuko ditut, eta honek kategorien teoriarako sortzen dituen zailtasunak azalduko ditut. 4. atalean, analisi kritiko honetatik atera beharreko ondorioak laburbilduko ditut. Azkenik, 5. atalean, eztabaida honek sortzen dituen galderak eta etorkizunean erantzun nahi baditugu, kontuan hartu beharreko alderdiak azalduko ditut, hots, nire tesian aurrera egin ahala jorratu nahiko nituzkeen gaiak.

## 2. Arloaren egoera: adberbioak euskarazko gramatiketan

Euskararen gramatika tradizioak, inguruko hizkuntzetako tradizioei jarraitu dien heinean, *adberbio* terminoa erabili izan du aditzaren eremua, perpausaren eremua zein zenbait adjektibo modifikatzen dituzten hitzei erreferentzia egiteko. Hala ere, inguruko hizkuntzek bezala (ikus Huddleston eta Pullum, 2002 ingeleserako, eta *NGLE* - Real Academia Española eta Asociación de Academias de la Lengua Española, 2009 gaztelaniarako), kategoría hau definitzerakoan zailtasunak izan dira nagusi, eta horrek eragin du termino honen pean bildutako hitzen multzoa oso heterogeneoa izatea. Atal honetan euskal gramatikek zeri deitu dioten adberbio aztertuko dut.

Aurreko euskal gramatiken ildo beretik (Azkue, 1925; Euskaltzaindia, 1991; Hualde eta Ortiz de Urbina, 2003), Euskaltzaindiak (2021: 784–790) honela ezaugarritzen du adberbioa: determinatzaile hartzan ez duen eta komunztadurarik egiten ez duen hitz mota, aditzak edo perpausak adierazitako gertaerari buruz informazio zirkunstantziala ematen duena, eta, beraz, aditzaren argumentu egituran parte hartzen ez duena. Definizio honek nahikoa zehatza eman dezakeen arren, hainbat egitura har ditzake barnean edo, beste modu batera esanda, ez ditu kanpo uzten tradizioz beste kategorietan sailkatu diren hainbat egitura (hala nola, adjektiboak eta PSak).

Bestalde, kontuan izan behar da, definizio horri jarraituz, beste hitz mota batzuk ere adberbiotzat hartu izan direla tradizionalki (Azkue, 1925; Lafitte, 1944), hala nola, *bai* edo *ez* polaritate hitzak; *al*, *ote* edo *omen* bezalako partikulak, edo *asko*, *oso* bezalako kuantifikatzaile eta graduatzaileak. Sailkapen berriagoek, ordea, halakoak adberbiotzat hartzea baztertzen dute (ikus honetarako Goenaga, 1980 [1978]; *SEG*, 2011–2019), adberbio gisa sailkatu diren beste hitzek ez bezala jokatzeko baitute. Adibidez, normalean ezin dira metatu (1a), beste modifikatzaile batzuekin gertatzen ez dena (1b):

- (1) a. \*Umeak nahiko guztiz asko ikasi du azterketarako  
b. Antza, aspaldi, azkar eraikitzen zituzten etxeak.

(1a)ko, eta gisako, elementuen banaketa ere askoz zurrunagoa da, *bai/ez* edo *al*, *ote* bezalakoak ezin baitira perpausoko hainbat gunetan agertu, adberbiotzat hartu ohi diren beste modifikatzaile batzuk ez bezala. Elementu horiek hainbat buru funtzionalen gauzapean lexikotzat hartzen dira gaur egun (ikus Ortiz de Urbina, 1989; Laka, 1990; Monforte, 2020; besteak beste). Kuantifikatzaileei dagokienez, azpimarratu behar da gutxi ikertu dela euskaraz aditzaren edo perpausaren eremuari eragiten dion kuantifikazioaz. Hala ere, Artiagoitiak (2002, 2004) eta Etxeberriak (2005 eta hh.) euskararako egindako lan zabalak erakusten du kuantifikatzaileek ere euren buru funtzionala behar dutela izenaren eremuari eragiten diotenean, eta hala, Goenagak (1980 [1978]: 83) adierazi duenez, antzeko proposamen bat ere egin beharko litzateke perpaus mailan eragiten duen kuantifikaziorako (adb. *ez dut asko lan egin*).

Hauek alde batera utzita, beraz, euskal gramatika tradizioan adberbiotzat hartu izan diren bestelako egiturak banaka eta bakoitza bere berezitasunean aztertzeke asmoz, Fernández-Altonaga (2022) lanean, itxura morfologikoaren arabera sailkatu dira. Hala, hitz mota bakoitzaren osaeran oinarrituta, bi sail bereiz daitezkeela erakutsi da. Alde batetik, atzizkien bidez osatzen diren hitzak daude, eta horien artean: i) *-ki*, *-to*, *-ro* atzizkia hartzen duten hitzak; ii) *-la* atzizkia hartzen dutenak; eta iii) *-ka* atzizkiak osatutakoak.<sup>2</sup> Beste aldetik, badira adberbiotzat hartu izan diren hitzak inongo atzizkirik hartzen ez dutenak: i) adjektiboekin homofonoak diren hitzak; ii) Izen Sintagmetatik (IS) eta PSetatik sortzen diren hitzak eta iii) bakunak diruditenak.

<sup>2</sup> Fernández-Altonaga (2022) lanean, *-rik* eta *-ta* atzizkiak osatutako hitzak ere aztertzen dira, Euskaltzaindiak (1991) dienez, hauek ere adberbioak eratoritzen baitituzte. Euskaltzaindiak (2021) ez ditu adberbio eratorleak diren atzizkien artean zerrendatu, eta labur beharrez, ni ere oraingoan ez naiz atzizki hauetaz mintzatuko.

Atzizkiz osatutako hitzei dagokienez, esan behar da hainbat hizkuntzatan zalantzaokak direla adberbio eratorletzat jotzen diren atzizkiak, askotan ez baitago adostasunik atzizki bat eratorpenarekin edo elkarketarekin lotu behar den erabakitzerakoan (Fábregas, 2014). Adibidez, Euskaltzaindiak (2021) atzizki hauek ematen ditu adberbio eratorle gisa: *-ki*, *-ro*, *-to*, *-ka* eta *-la*. Hortaz, atzizkiok beste kategoria bati atxikiz gero, kategoria berri bat, adberbioarena, eratortzen dela onartzen du. Alabaina, atzizki hauetako hainbatek zalantza ugari sortzen dituzte eta ez dute uxatzen modifikatzaileok beste kategoria batzuetako hitzak izan daitezkeelako susmoa.

Hain zuzen, hainbat hizkuntzatan adberbio eratorletzat jotzen diren atzizkiekin sortzen den arazo teoriko bera aurkitzen dugu euskaraz (ten Hacken, 2014): adberbioa kategoriatzat jotzeko argudio gisa erabiltzen da adberbioak sortzeko atzizki berezituak egotea. Orobat, atzizkiok eratorpenekoak direla defendatzeko, kategoria aldaketa dakartela argudiatu ohi da (adibidez, adjektibotik adberbiora: *eder* > *ederki*). Alabaina, kontuan hartu behar da adberbio kategoriarako definizio bateraturik ez dugunez, aipatutako atzizkiek *adberbioak* eratortzen dituztela esatean, izatez esan nahi dela beste kategoria bateko hitz bati atzizki hauetako bat gaineratuz gero, aditzaren edo perpausaren eremuko modifikatzaile gisa jokatzeko dutela. Hurrengo atalean (3. atala) argudiatuko dudanez, adberbiotzat hartzen diren hitzak ez dira funtzio hau bete dezaketen egitura bakarrak eta, beraz, irizpide hau ez da erabakigarria gramatika kategoria bat identifikatzeko.

Beraz, euskarari dagokionez, Euskaltzaindiak (1991, 2021) eta SEGek adberbio eratorle gisa sailkatutako atzizkiei begiratu bat emanez gero, adberbio kategoriaren behararen inguruko zalantzak argitu baino, areagotu egiten dituzten zenbait arazo aurkitzen ditugu (ikus Fernández-Altonaga, 2022):

1) *-ki*, *-to*, *-ro* (eta horietatik eratorritako *-kiro* eta *-roki*) atzizkiak: hainbat kategoriatako elementuekin konbinatzen dira. Nagusiki adjektiboekin aurkitu ohi diren arren (*sutsu-ki*, *eder-to*), izenak (*gizon-ki*) eta are morfema gehigarriak eskatzen dituzten egiturak ere har ditzakete: elementu postposiziodunak (*dolore-z-ki*) eta partizipioak (*delibera-tu-ki*). Hainbat kategoriarekin konbinatzeaz gain, eratorpen-atzizki prototipikotik urruntzen dituen beste ezaugarri bat ere badute: ez dute berezko esanahirik.<sup>3</sup> Izan ere, atzizki hauek ez dute oinarriko hitzaren esanahia aldatzen, modifikatu dezakeen elementua baizik. Gainera, *-to* eta *-ro* atzizkiak ihartuta daude gaur egun.

2) *-la* atzizkiari dagokionez azpimarratu behar da ez dela morfema emankorra. Hitz gutxi batzuek baino ez daramate atzizki hau (*honela*, *horrela*, *bestela*, *bezala*), eta inoiz ere ez zaio adjektibo bati lotzen (*-ki* atzizkia ez bezala), erakusleei baizik (adb. *horrela*: *hor* + *-(e)la*). Hala, esanahi deiktikodun modifikatzaileak sortu ditu. Badirudi hitz horiek guztiak lexikalizatutako elementuak direla eta, beraz, zaila da pentsatzea gaur egun aipatutako kasu horietan inolako eratorpenik gertatzen denik. Are gehiago, baliteke inoiz atzizki eratorlea izan ez izana, eta posposizio izatetik hitz batzuetan ihartuta geratzera igaro izana.

3) *-ka* atzizkiak ere zalantza ugari sortzen ditu. Ez dago argi atzizki bakar baten aurrean gauden kasu guztietan edo morfema homofonoen aurrean, atzizki hau ere, *-ki* bezala, hainbat kategoriarekin konbina baitaiteke: izenak (*tiroka*), PSak (*barrezka*), jokatu gabeko aditzak (*jaurtika*), zenbatzaile banatzaileak (*binaka*) edo beste deiktiko batzuk (*han-hemenka*). Sortzen diren hitzak, gainera, ez dira beti modifikatzaileak; aditz predikatu batzuen parte ere izan daitezke: *tiroka ibili*, *barrezka hasi*.

Ikus daitekeenez, atzizkiak hartzen dituzten modifikatzaile guztiek hitz mota bakarra osatzen ote duten zalantzarria da. Zalantzak, gainera, areagotu egiten dira aintzat hartuz gero euskal gramatika tradizionalak adberbiotzat hartzen dituen zenbait hitz beste kategoria batzuetako hitzak bezalakoxeak direla formaz, eta ez dutela inongo atzizkirik hartzen. Hurrengo atalean kasu hauetaz arduratuko naiz, kategoriaren auzia ulertzeko berebiziko garrantzia baitute.

---

<sup>3</sup> Argudiatu daitekeen arren semantika propioa izatea ez dela baldintza ezinbestekoa eratorpen atzizkia izateko, eratorpena inflexiotik bereizteko kontuan hartu ohi diren ezaugarriak dira atzizkiek oinarriaren i) kategoria, edota ii) semantika aldatzeko gai izatea (ten Hacken, 2014). Ezin froga daiteke *-ki*, *-to*, *-ro* atzizkiek ez bata ez bestea egin dezaketetik, eta gauza bera esan daiteke gazteleraz kidekoa den *-mente* atzizkiarekin (Fábregas, 2007).

### 3. Adberbioak, Postposizio Sintagmak eta adjektiboak, zein da zein?

#### 3.1. Adberbioak eta Postposizio Sintagmak

Goian agertu den bezala (2.atala), adberbioak definitzeko, askotan, haien funtzio semantikoari egiten zaie erreferentzia (ikus Azkue, 1925; Lafitte, 1944; Euskaltzaindia, 1991, 2021; Hualde eta Ortiz de Urbina, 2003; *SEG*, 2011–2019). Hots, adberbioak aditzaren edo perpausaren eremuaren modifikatzaile gisa aurkezten dira. Hala ere, funtzio semantikoari baino ez bazaio begiratzen, badira beste zenbait elementu aditzaren edo perpausaren eremua modifikatzen dutenak. Erreparatu (2) adibideari:

(2) **Atzo / Goiz hartan**, autobusa hartu zuen.

Hala, sortzen den galdera da ea zilegi ote den *goiz hartan* adberbiotzat hartzea. Euskararen gramatika gehienetan (Euskaltzaindia 1991, 2021; Hualde eta Ortiz de Urbina, 2003; *SEG*, 2011–2019), elementu hauek, oro har, PStzat hartzen dira, ez adberbiotzat. Beraz, modifikazio ahalmenari dagokionez, ez da argi geratzen zein den *atzo* eta *goiz hartan*-en arteko desberdintasuna. Nabarmendu daitekeen ezaugarri bakarra da *atzo* hitz bakartzat hartu ohi dela. Baina, hori hala izanik, bi dira sortzen diren arazoak: alde batetik, onartu behar dugu modifikatzaile funtzioa izatea ez dela ezaugarri nahikoa adberbioa definitzeko. Bestetik, ez dago argi esaterik zer den hitz bakartzat hartu beharko genukeena. Esaterako, har bitez (3)ko adibideak:

- (3) a. Horma apurtu zuen **mailu batez**.  
 b. Horma apurtu zuen **bortizkeriaz**.  
 c. Horma apurtu zuen **bortizki**.

Ohiko da (3a)koa PStzat hartzea, -z postposizio instrumentala buru dela osatzen baita. Baina hori hala bada, (3b)koa ere PStzat hartu beharko litzateke, atzizki beraren gainean osatuta baitago. Horrek, bestalde, ez luke azalduko zergatik hartu beharko litzatekeen (3b) PStzat eta (3c) adberbiotzat, biak ala biak hitz bakartzat hartu izan badira euskaraz.

Arazo honi Euskaltzaindiaren (1991) gramatikan heltzen zaio. Bertan, adberbio gisa aurkeztutakoak hiru motatan sailkatzen dira: i) adberbializazioa burutu duten hitzak: hauetan, gaur egun hiztunek ez dute postposiziorik sumatzen (adb. *aurten*) edo bere esanahia ez da konposizionalki eraikitzen (adb., *gainera* elementuan, ez da -*ra* postposizioak berez duen helburu mugimendurik adierazten); ii) adberbializazio bidean dauden hitzak: *estereotipaturik* erabiltzen direla esaten da (adb. *ostean*, *gustura*), nahiz ez den gehiegi zehazten zer irizpide erabili behar den erabilera bat estereotipatutzat hartzeko, eta iii) postposiziodun izen gisa interpreta daitezkeenak, adiera berezirik gabe (adb. *mendiz*, *lagunarekin*).<sup>4</sup>

Hala ere, agerikoa denez, irizpide hauek ere hainbat zalantza sor ditzakete. Izan ere, sailkapen honen oinarrian *lexikalizazio mailaren* irizpidea dago. Egitura batek zenbat eta esanahi soilagoa, ez-konposizionalagoa eta konbentzionalagoa izan, gehiago hartuko da hitz bakartzat. Ordea, egituraren aldetik (3b) bezalako egituretan zein (3c) bezalakoetan, bi osagai (edo gehiago) antzeman ditzakegu, eta batean zein bestean, interpretatzen den esanahia baliokidea dela ematen du.

Horrela, irizpide honi jarraituz gero, berriro onartu beharko litzateke egituren kanpoko itxurari ez eta haien esanahiari begiratu behar zaiola zein den adberbioa eta zein ez zehazteko. Gainera, zehaztu beharko litzateke zein lexikalizazio mailatik aurrera hartuko den egitura bat adberbiotzat, eta agerian utzi lexikalizazio maila hau identifikatzeko zein irizpide erabiliko den. Honek, kasurik hoberenean, sailkapen argiago bat utz lezakeen arren, banaketa arbitrarioa eragingo luke egitura batzuen eta besteen artean.<sup>5</sup>

<sup>4</sup> Bereizketa bera gorde du Euskaltzaindiak (2021: 801).

<sup>5</sup> Arbitrariotasun honen erakusgarri, esanguratsua iruditzen zait *orduan* hitzaren jokabidea:

- (i) Trena orduan ailegatu zen.  
 (ii) Orduan, trena ailegatu zen.  
 (iii) Trena ailegatu zen, orduan.

Esan liteke (i) kasuan *orduan* hitzaren interpretazioa konposizionalagoa dela ('zegokion ordu horretan heldu zen'); (ii) adibidean, ostera, adiera konbentzionalagoa da, deiktikoki erabiltzen baita 'momentu horretan' adierazteko (*ordu* hitzaren jatorrizko adieratik urrunago). Are konbentzionalago, (iii) adibidean, *orduan* 'ondorioztapena'

Bestalde, banaketa hau izan ezean, *adberbio* kategoria onartzea intuizio kontua bilakatzen da. Horren adierazgarri da Euskaltzaindia (2021) lanean edo *SEGN* hartzen den jarrera. Euskaltzaindiak (2021: 787), funtzioari begira dio PSak eta adberbio sintagmak mota bereko osagaiak direla. Dena dela, osagai mota horrek zer deitura jaso beharko lukeen erabakitzea zaila dela-eta, sailkapenean biak bereiz mantentzen dira, berriz ere *adberbio sintagma* bat onartuaz, prezeski zer elementuk osatzen duten zehaztu gabe. Antzeko jarrera da *SEGen*.

### 3.2. Adberbioak eta adjektiboak

Aurreko atalean argi geratu da adberbio direlako eta PS batzuen arteko desberdintasuna ez dela inondik eta inora begi-bistakoa. Alabaina, adberbioek badute beste kategoria batzuen antz handia ere, ia ezin bereizterainokoa: hain zuzen, adjektiboena. Hala gertatzen da, hain zuzen ere, adberbiotzat hartu diren hitz batzuen eta adjektiboaren artean ere. Izan ere, euskararen gramatika batzuek (Euskaltzaindia 1991, 2021; Hualde eta Ortiz de Urbina, 2003) adberbiotzat hartzen dituzte honelako egiturak ere:

(4) Ane **azkar** atera zen bileratik.

Berriz ere, sailkapen honetarako irizpidea semantikoa da. Kasu honetan, itxuraz, *azkar*-ek adjektibo baten antza duen arren (esan baitaiteke *bidaia azkarra*), modifikatzen duena ez da izena (edo izenaren eremuko elementu bat) baizik eta aditza. Dena dela, diodanez, egiturak zer modifikatzen duen begiratzea ez da irizpide erabakigarria, ez baita arrazoi nahikoa PSak eta adberbioak bereizteko. Horrek sortzen duen zalantza da ea *azkar* kategoria desberdineko hitza ote den *azkar atera da* eta *bidaia azkarra* egituretan. Desberdinak baldin badira, azaldu egin beharko litzateke zertan diren desberdinak eta ezaugarri horiek zeren araberakoak diren (ikus Agirre, 2017).

Zenbait hizkuntzatarako, hala nola, gaztelaniarako (Bosque, 1989; Kovacci, 1999; *NGLE*, 2009) proposatu izan da adjektiboek, adberbioek ez bezala, komunztadura egiten dutela modifikatzen duten izenaren genero eta numeroarekin, (5a) eta (5b) alderatzean ikusten denez:

- |     |    |                             |                   |                |
|-----|----|-----------------------------|-------------------|----------------|
| (5) | a. | <i>la</i>                   | <i>bicicleta</i>  | <i>rápida.</i> |
|     |    | DET.F.SG                    | bizikleta         | azkar.F.SG     |
|     |    | ‘bizikleta azkarra’         |                   |                |
|     | b. | <i>María</i>                | <i>llegó</i>      | <i>rápido.</i> |
|     |    | Maria(F)                    | heldu.PST.PFV.3SG | azkar.M.SG     |
|     |    | ‘María azkar ailegatu zen.’ |                   |                |

Euskaraz ere, adjektiboek numeroa komunztatzen dute lehen mailako predikazioan (6):

(6) Liburuak [interresgarriak dira].

Aditza modifikatzerakoan, ordea, euskaraz, adjektibo itxurako elementuak beti agertuko dira numero markarik gabe:

(7) Lapurrak **azkar** mugitzen dira. / \*Lapurrak **azkarrak** mugitzen dira

Hala ere, ez dago argi desberdintasun honen azalpena ezin ote den arrazoitu, besterik gabe, aditzaren eremuko modifikatzaileek, hala nola (7) adibidekoak, izenik modifikatzen ez dutela esanez. Izan ere, generoa eta numeroa izenari dagozkion ezaugarriak dira, eta pentsa daiteke ezaugarri hauek ez dituzten egiturak modifikatzeak berez dakarrela ezaugarriekin komunztatu behar ez izatea. Beraz, ez du ematen hau ere ezaugarri erabakigarria denik adberbioa aparteko kategoriatzat hartzeko.

Adjektibo/adberbio bereizketaren auziari aurre egin diote baita ere Zabala eta Odriozolak (1994) alde batetik, eta de Rijk-ek, (1998 [1996], 2008) bestetik. Zabalak eta Odriozolak (1994) adjektibo itxurako adberbioak kategoria aldetik adjektiboak direla argudiatu dute. De Rijkek (1998 [1996]), ordea, Zabala eta Odriozolaren proposamenaren aurka, adjektiboak eta berak *egoerazko adberbioak* (ing. *stative adverb*) deiturikoak bereizi behar direla argudiatu zuen. Aurrerago, bere gramatikan (de Rijk, 2008), egoerazko adberbio direlako *predikatibo* deitzen die (ing. *predicatives*), kategoriari dagokion auzia argitu gabe utziz, baina oraindik ere adjektiboetatik bereizi beharra azpimarratuz. Izan ere, bere ustez,

---

adierazteko dago. Zilegi ote da pentsatzea, beraz, hiru hitz desberdin direla? (kasu honen inguruko eztabaidarako ikus Euskaltzaindia 2021: 788).

funtzio predikatiboan (8a) agertu daitezkeen hainbat hitz ezin dira funtzio atributiboan agertu, hau da, izen bat zuzenean modifikatzen (8b):

- (8) a. Ikasleak **adi** entzun dio irakasleari.  
b. \*Ikasle **adia**

Hala ere, de Rijk-ek berak (2008) azaltzen duenez, interesgarria da kontuan hartzea adjektibo itxura duten modifikatzaile hauek, batzuetan atzizkiak har ditzaketela funtzio bera betetzeko:

- (9) a. Hartzak **motel** mugitzen dira.  
b. Hartzak **motelki** mugitzen dira.

(9)ko adibideei begira, beraz, ematen du adjektibo itxurako modifikatzaile batzuk eta *-ki* atzizkia hartzen dutenak guztiz baliokideak direla. Honek ere zaildu egiten du adjektiboak adberbioetatik bereizteko ahalegina, bai baitirudi, testuinguru hauetan behintzat, bientzako analisi bera eman beharko litzatekeela.

Hau guztia kontuan hartuta, agerian geratzen da, PSen kasuan bezala, adjektiboekin ere ez dela erraza adberbioetatik modu erabatekoan bereiztea. Biak desberdinu beharraz eztabaidak egon diren arren, gramatikalariek ez dute irizpide argirik aurkitu bata bestetik bereizteko, eta modifikatzen dutenari begira jarri dira bereizketa egin nahian. Hala ere, ikusirik adjektiboek zein adberbio direlakoek, biek dutela modifikatzeko gaitasuna, ez da argi geratzen kategoriatik bat bereizteko esanguratsua ote den zer modifikatzen duten kontuan hartzea.

#### 4. Ondorioak

Lan honetan azaldu dut adberbio deitura jaso duen egitura multzoak arazo nabarmenak dakartzala gramatika kategorien teoriarako. Alde batetik, zenbait atzizki (*-ki*, *-ka*, *-la*) adberbio eratorletzat hartu izan dira euskal gramatiketan, baina, erakutsi dudanez, ikuspegi honen aldeko argudioak ez dira erabakigarriak. Izan ere, kontuan hartu beharra dago *-ki* edo *-ka* bezalako atzizkiak era askotako kategoriekin konbinatzen direla, ohiko eratorpen atzizkiak ez bezala. Gainera, ematen du atzizkion funtzioa dela kategoriatik horren modifikazio ahalmena aldatzea, eta ez dutela bestelako esanahi (eta agian, ezta kategoriatik) aldaketarik eragiten.

Bestalde, atzizkirik hartzen ez duten modifikatzaile askok beste kategoriatik batzuetako hitzen itxura bera dutela azaldu dut. Euskaraz, bereziki, PS itxura edo adjektibo itxura duten hainbat modifikatzaile daude. Gainera, PS eta adberbioen kasuan, banaketa ere bera da. Hala, *adberbio* kategoriatik PS eta adjektiboetatik bereiz mantentzearen aldeko argudioak ahulak direla erakutsi dut, eta banaketarik egin behar izanez gero, muga arbitrarioki ezartzeko arriskua dagoela.

Arazo teoriko hauek erakusten dute orain arte multzo bakartzat hartu diren modifikatzaile hauei arreta handiagoa zor zaiela. Hala, egituren jokabidearen araberrako sailkapenak egitea ezinbestekoa da eta baita, ezaugarritze zehatz batetik abiatuta, jokabide hauek azal ditzaketen analisiak proposatzea. Horixe izango da nire helburua tesian zehar.

#### 5. Etorkizuna

Lan honetan eztabaidatu ditudan arazoei erreparatzeak bidea zabaltzen du etorkizunean aditzaren eta perpauzaren eremuko modifikatzaileei beste era batera begiratzeko. Arazo hauek agerian uzten dute modifikatzaileen jokabidea ulertu nahi bada, beharrezkoa dela modifikatzaile hauek beste kategorietako egituren antza zergatik duten argitzea, hau da, modifikatzaile hauek eta adjektiboek edo PSek komunean zer duten zehaztea, esaterako.

Bestalde, adberbio deiturapean bildu diren egitura hauek guztiak funtzio berak, hots, modifikazioak, batzen dituela kontuan harturik, haien arteko antzekotasunak haien modifikatzaile izaeratik eratorri beharko lirerateke. Horretarako, nire ustez, egitura hauen ezaugarri morfo-sintaktikoak bere funtzio semantikoarekin lotzen dituen analisi bat lortu behar da. Honek, batetik, modifikazioari buruzko teoriarik sakontzea eskatuko du, eta bestetik, beste hizkuntza batzuetan egitura modifikatzaileek euskarazko egituren ezaugarri berak dituzten aztertzea. Azken finean, euskarazko modifikatzaileen itxura eta jokabidea azaltzen saiatuko den teoria batek beste hizkuntzetako modifikatzaileak azaltzeko saiakera ere egin beharko luke. Bide honetatik abiatuko da nire tesia, modifikatzaileen analisi bateratu bat proposatzea helburu.

## 6. Erreferentziak

- Artiagoitia, X. (2002): The functional structure of the Basque noun phrase, in X. Artiagoitia, P. Goenaga & J. A. Lakarra (arg.), *Erramu Boneta: Festschrift for Rudolf P. G. de Rijk*, UPV/EHU Argitalpen Zerbitzua, Vitoria-Gasteiz, 73-90. DOI: <https://doi.org/10.1387/asju.9634>
- Artiagoitia, X. (2004): Izen-sintagmaren berziklatzea: IS-tik izenaren inguruko funtzio-buruetara, in P. Albizu, & B. Fernández (arg.), *Euskal gramatika XXI mendearen atarian*, UPV/EHU-Arabako Foru Aldundia, Vitoria-Gasteiz, 11-38.
- Azkue, R. M. (1925): *Morfología vasca*, Editorial Vasca, Bilbo.
- Baker, M. (2003): *Lexical categories: verbs, nouns and adjectives*, Cambridge University Press, Cambridge. DOI: <https://doi.org/10.1017/cbo9780511615047>
- Bosque, I. (1989): *Las categorías gramaticales*, Síntesis, Madril.
- Delfitto, D. (2006): Adverb classes and adverb placement, in M. Everaert & H. van Riemsdijk (arg.), *The Blackwell companion to syntax*. Blackwell Publishing, New Jersey, 83-120. DOI: <https://doi.org/10.1002/9780470996591.ch4>
- de Rijk, R. P. G. (1998 [1996]): Basque manner adverbs and their genesis, in *De lingua vasconum: Selected Writings, 1998*, ASJUren gehigarriak 43, 391-419. DOI: <https://doi.org/10.1387/asju.9614>
- de Rijk, R. P. G. (2008): *A standard grammar of Basque*, MIT Press, Cambridge, Mass. DOI: <https://doi.org/10.7551/mitpress/7444.003.0014>
- Etxeberria, U. (2005): *Quantification and domain restriction in Basque*. [Doktorego tesia, UPV/EHU].
- Euskaltzaindia. (1991): *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-I (EGLU-I)*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- Euskaltzaindia. (2021): *Euskararen gramatika*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- Fábregas, A. (2007), Adverbios en *-mente* y la estructura del adjetivo en español, *ELUA, Estudios de Lingüística Universidad de Alicante*, 21, 103–124. DOI: <https://doi.org/10.14198/ELUA2007.21.06>
- Fábregas, A. (2014): Adjectival and adverbial derivation, in R. Lieber & P. Stekauer, P. (arg.), *The Oxford handbook of derivational morphology*, Oxford University Press, Oxford, 276-295. DOI: <https://doi.org/10.1093/oxfordhb/9780199641642.013.0016>
- Fernández-Altonaga, C. (2022), Adberbioak euskaraz: hitz mota bakarra ala gehiago? *Uztaro*, 123, 81-127.
- Goenaga, P. (1980 [1978]): *Gramatika bideetan*, Erein, Donostia.
- Hualde, J. I., & Ortiz de Urbina, J. (2003): *A grammar of Basque*, Mouton de Gruyter, Berlin. DOI: <https://doi.org/10.1515/9783110895285>
- Huddleston, R. & G. K. Pullum. (2002): Adjectives and adverbs, in R. Huddleston, & G. K. Pullum (arg.), *The Cambridge grammar of the English language*, Cambridge University Press, Cambridge, 525-597. DOI: <https://doi.org/10.1017/9781316423530.007>
- Jackendoff, R. S. (1972): *Semantic interpretation in generative grammar*, MIT Press, Cambridge, Mass.
- Kovacci, O. (1999): El adverbio, in I. Bosque & V. Demonte (arg.), *Gramática descriptiva de la lengua española*, Espasa Calpe, Madril, 705-786.
- Lafitte, P. (1944): *Grammaire basque: navarro-labourdin littéraire*, Librairie "Le Livre", Baiona.
- Laka, I. (1990): *Negation in syntax: on the nature of functional categories and projections*. [Doktorego tesia, MIT].
- Monforte, S. (2020): *Galderetako -a, al eta ote partikulak euskaraz. Sintaxia, mikroaldakortasuna eta interpretazioa*. [Doktorego tesia, UPV/EHU].
- Ortiz de Urbina, J. (1989): *Some parameters in the grammar of Basque*, Foris, Dordrecht.
- Ramat, P. & Ricca, R. (1994), Prototypical adverbs: on the scalarity/radiality of the notion of adverb, *Rivista di Linguistica*, 6(2), 289-326.
- Real Academia Española y Asociación de Academias de la Lengua Española. (2009): *Nueva gramática de la lengua española (NGLE)*, Espasa-Calpe, Madril.
- Salaburu, P., I. Sarasola & P. Goenaga. (2011-2019): *Sareko Euskal Gramatika (SEG)*. [Sarean eskuragarri: <https://www.ehu.eus/seg/aurkezpena>, azken kontsulta: 2023/02/18]
- ten Hacken, P. (2014): Delineating derivation and inflection, in R. Lieber & P. Stekauer, P. (arg.), *The Oxford handbook of derivational morphology*, Oxford University Press, Oxford, 10-25. DOI: <https://doi.org/10.1093/oxfordhb/9780199641642.013.0002>
- Zabala, I. & J. C. Odriozola. (1994), 'Adjektiboen' eta 'adberbioen' arteko muga zehatzik eza, *ASJU*, XXVIII (2), 525-541. DOI: <https://doi.org/10.1387/asju.8419>



## 7. Eskerrak eta aipamenak

Lan hau nire tesi proiektuan oinarritzen da. Tesi hau Espainiako Unibertsitate Ministerioko FPU dirulaguntzari esker burutzen ari naiz [FPU21/05860], *Gogo Elebiduna* (UPV/EHU) ikertaldearen azken proiektu finantzatuaren barruan ([IT1439-22], *Hezkuntza Saila, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuordetza*) alde batetik, eta IKER UMR5478 ikergunean bestetik. Erakunde hauez gain, eskerrak zor dizkiet nire tesi-zuzendari biei, Beatriz Fernández eta Urtzi Etxeberria, bide guztian zehar, eta baita lan honekin ere, laguntzeagatik. Azkenik, idazlan hau aztertzaile biren iruzkinek aberastu dute, eta haiei ere nire esker ona adierazten diet. Gera daitezkeen akatsak nireak baino ez dira.